

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

PyireneFP Lanbide Heziketako Europako proiektuaren bilera egiten ari dira Iruñean

Nafarroa, Euskadi, Katalunia, Aragoi eta Akitaniako Lanbide Heziketako arduradunak ari dira gaur eta bihar PyireneFP proiektua lanean

Osteguna, 2017.eko urriak 19

Bartzelonan, Toulousen eta Zaragozan elkartu ondoren, Iruñean ari dira gaur eta bihar Nafarroa, Euskadi, Akitania, Aragoi eta Kataluniako Lanbide Heziketako ordezkariak, PyireneFP europear programan lanean.



Nafarroa, Euskadi, Katalunia, Aragoi eta Akitaniako ordezkariak.

Espania, Frantzia eta Andorrako lurraldeak elkarlanean aritzeko POCTEFA

programaren barruan sortu da PyireneFP proiektua; Pirinioen alde bietako lanbide heziketa zentrozen elkarlana sustatzeko eta elkarlanean indartzeko ikasle nahiz irakasleen formazioan. Gaur eta bihar Hezkuntza Departamenduaren egoitzan ari dira lanean Nafarroa, Katalunia, Euskadi, Aragoi eta Akitaniako Lanbide Heziketako ordezkariak.

Gaurko saioan zentrozen formazio eskaintzak antolatzeke moduak aztertu dituzte, lanbide heziketako ikasleak leku batetik bestera mugiarazteke eta batean zein bestean ikasitakoa aintzat hartzeko modua egiteke.

Zehazki 452 ikasle mugiaraziko dira 2018an eta 144 irakasleri emango zaie formazioa orientazio profesionalean eta mugaz gaindiko mugikortasunean. Nafarroak 30 hezitzaileekin eta 110 ikaslerekin lan egiteke konpromisoa hartu du.

Nafarroako Hezkuntza Departamenduko Lanbide Heziketa Zerbitzu-zuzendari Esther Monterubiok azaldu bezala, asmoa da “mugikortasunean eta orientazio profesionalean adituak izango diren hezitzaileak trebatzeko plana sortzea”.

Proiektuak, hain justu, emaitza horixe proposatzen du: formatzaileak eta orientatzaileak trebatzea, eta lanbide heziketa ikasleak mugiaraztea lurraldeen artean, beste herrialdeetako enpresetan treba daitezen edo Pirinioen bi aldeetako ikastetxeen hezi daitezen, beti ere, han egingo duten trebakuntza hori egiaztatzeke aukera emanez, lurralde guztietan baliagarria izan dadin. Era horretan, lortuko da ikastetxeen arteko sarea sortzea eta mugaz gaindiko informazio eta orientazio profesionaleko unitateak izatea, ikasle eta langileen mugikortasuna errazteke.

Proiektuak 1300 pertsona artatzea aurreikusten du 3 urteko epean, Katalunian, Akitanian, Aragoian, Euskadin eta Nafarroan.